Pinocchio

IKUSPEGI GARAIKIDEA **6 URTETIK AURRERA**KO IKUSLE GUZTIENTZAT

teatro gorakada



BABESLEAK

Bizkaia foru aldundia diputación foral

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA SAILA DEPARTAMENTO DE CULTURA

LAGUNTZAILEAK

topic.

HARROBIA

ESKENAKO KIDEA

ESKENA

FETEN 2020

ZUZENDARITZA ONENARI saria

WWW.GORAKADA.COM

"Moby Dick" eta" Ulisesen bidaia"ren ildoari jarraikiz, Gorakada "PINOCCHIO" antzezlanarekin dator oraingoan. Hala, proposamen arriskutsu eta kalitatezkoa eskainiko dugu, lan eszenikoan zein dramaturgian jaioa den talde baten eskutik.

PINOCCHIO

Gure PINOCCHIO naturaren indar bat da, umeak bezalaxe. Egiazko Pinocchio bat da, pragmatikoa eta bihurria, eta, aldi berean, azkarra eta sanoa. Gizartearekin guztiz bat egiteak ez duenez bete-betean aseko, borrokan aritu beharko du bai bere buruarekin, bai ikasteko asko duen gizarte batekin.

Lana eszenaratzeaz hiru aktore eta musikari bat arduratuko dira. Objektuen jolasa erabiliz eta hizkuntza desberdinak gurutzatuz. Jatorrizko obraren izaera metaforiko eta esanguratsua azpimarratuko dute, berezkoa duen sinbolismoa nabarmenduz. Kontakizun txikiak egingo dira objektu sinple eta egunerokoak erabiliz, objektua baliabide diskurtsibo bezala erabiltzera arte. Halaber, musikak eta soinuek ikuslegoaren adimena garatzen lagunduko digute, imajinazioa eta sormena sustatu ahala.

SINOPSIA

Gepettok bere azken lana amaitu du: Pinocchio. Baina, nor da Pinocchio? Zer egiten du mundu honetan? Edo zer egin beharko luke? Galdera horiei erantzuteko, bidaia bati ekingo dio: mundu errealetik imajinaziora, nobela pikareskoaren iruditeriatik animaliaz jositako fabulara, espetxetik itsasoaren barrenera, errementariaren tailerretik Quimericako mundu magiko faltsura, kontsumoaren paradisura. Eszenatoki asko, pertsonai asko, ekintza asko.

Nortasun-ikurren eta jokatzeko ereduen bilaketa etengabean arituko da Pinocchio. Horretarako, gomendatu diotena egingo du: bizitzen dituen esperientzietatik, egiten dituen aurkikuntzetatik eta bizitzatik ikasiko du. Eta itsas munstroari aurre egin eta Gepetto salbatzen duenean, orduan deskubrituko du, azkenean, bere bizimoduarekin gustura egoteko modua. Istorio zirkularra da Pinocchiorena, jatorrizko nobelan bezala.

Collodik hainbat elementu baliatu zituen bere istorio hilezkorrerako. Guk, horietako batzuei eutsi diegun arren, kontakizuna eguneratu dugu. Atzean utzi dugu bere muntaketetan ageri ohi den estetika gozoa. Gure Pinocchio modernoa da, zabarra, zertxobait punkya eta kalekoa. XXI. mendean bizi da eta egungo gaiekiko kezka du. Estetika desberdina aukeratu dugu, gaur egungo ikusleak ez baitira Collodi irakurtzen zuten horiek. Oso interesgarria iruditzen zaigu, gainera, istorio klasikoak kontatzeko kode berriak aurkitzea.

Collodiren bereizgarri izan zen grina bihurri hori gaurkotasunetik interpretatu dugu. Eta, egiari zor, bera ados egongo litzatekeela uste dugu.

FITXA ARTISTIKOA

Egilea: CARLO COLLODI

Egokitzapena: JULIO SALVATIERRA ETA KIKE DIAZ DE RADA

Itzulpena: IDOIA BARCELO

Zuzendaritza: JOSE CARLOS GARCIA

Zuzendari laguntzailea: KIKE DIAZ DE RADA

Musika: FRAN LASUEN

Antzezleak:

PAKO REVUELTAS

AROA BLANCO

NEREA ARIZNABARRETA

PAU TORRES

Argi diseinua: ION CHAVEZ

Eszenografia: IKERNE GIMENEZ ETA ALEX DIAZ

Jantziak: IKERNE GIMENEZ

Eszenografia-eraikuntza: ESKENITEK

Argazkiak: TXELU ANGOITIA

Diseinu grafikoa: EPS COMUNICACIÓN


Zuzendaritza artistikoa eta Exekutiboa: ALEX DIAZ

Ekoizpena: TEATRO GORAKADA

Administrazioa: MAITE LOPEZ





Pinocchio


Gepetto


Maitagarria


Musikaria

FITXA TEKNIKOA



teatro gorakada

946217053
gorakada@gorakada.com
administracion@gorakada.com